

Zer ote euskara normalizatzea?

Behin baino gehiagotan entzun dut azken urtean normalizazio kontzeptua ez dela egokia euskarari buruz dugun xedea islatzeko.

Lluís Aracil-ek sortutako hizkuntza-normalizazio kontzeptua, askotan baliatu du euskararen aldeko mugimenduak. Horren adibideak dira, besteak beste, Eusko Legebiltzarrak 1982an onartu zuen Euskararen erabilera normalizatzeko oinarriko Legea eta, 1997an, Euskararen Unibertsoa Jardunaldietan bultzatu zen Hizkuntzaren Normalizaziorako Plan Estrategikoa.

Hala ere, nago ez diogula pentsatu nahikorik eman bere esanahia argitzeko edo, hobeto, guk horrekin zer ulertzen dugun zehazteko. Neure buruan argi pixka bat egin nahirik, Soziolinguistika Eskuliburuaren edukietara jo dut, eta hemen jasoko diren aipuak hortik lapurtu dizkiet zenbait egileri.

Zer da, bada, hizkuntza-normalizazioa? Battitu Coyosek jasotzen duenez, minorizazio-egoeran dagoen hizkuntza, egoera horretatik atera eta gizarte-esparru eta funtzio guztietara hedatzeko prozesua. Bide beretik, Sánchez Carrión *Txepetx*-en arabera, normalizazioaren helburua hizkuntzaren garapen osoa lortzea da; alegia, garaian garaiko funtzio guztiak bete ahal izatea.



Iñaki Martínez de Luna
SOZIOLOGOA

Normalizatzea deitu edo beste zerbait deitu, zer da, utopia eta errealismoaren artean kokatuz, euskararentzat lortu nahi duguna? Badugu zer pentsa eta hausnartu

Egia da, beste termino batzuk ere erabili izan direla gurean, hala nola euskara biziberritzea (EBPN, 1999), euskara sustatzea (ESEP, 2013) eta hizkuntza-berdintasuna (GFA, 2015). Galdera da nolako esanahia duten kontzeptu horiek; alegia, normalizazioaren

baliokideak ote diren edo, bestela, zein den, kasuan kasu, termino bakoitzak jomugatzat jartzen duen asmoa. Zein da, erabiltzen den terminoa edozein dela ere, lortu nahi ditugun maila soziolinguistikoa eta politiko-juridikoa?

Ondoren laburbiltzen dira Imanol Larrea eta Paul Bilbaok hizkuntza gutxitu baterako aurreikus dituzten aukerak. Gutxieneko helburu soziolinguistikoa litzateke euskarak erabilera eremu guztiak bere egin dezan. Helburu ertaina: aurreko mailari gehitzea euskaraz ez dakiten herritarrak elebiduntzea. Gehienezko helburua: aurreko biak eta aloglotak (beste hizkuntza bat duten etorkinak) gure hiztun-komunitatean integratzea. Eta ondoren datoz marko politiko-juridikoaren gainean aipatzen dituzten hiru aukerak. Gutxienekoa: nahi dutenek hizkuntza gutxitua alor guztietan erabili ahal izatea; hots, hizkuntza-eskubideak bermatzea. Ertaina: aurrekoari gehitu hizkuntza gutxitua erakunde guztien hizkuntza ofiziala izatea. Gehienezkoa: hizkuntza gutxitua hizkuntza ofizial bakarra bihurtzea.

Normalizatzea deitu edo beste zerbait deitu, zer da, utopia eta errealismoaren artean kokatuz, euskararentzat lortu nahi duguna? Badugu zer pentsa eta hausnartu. ■

120

ZINEMAK
120
URTE

38.

EUSKAL

LEKEITIO
2015

ZINE BILERA

AZAROAREN
22TIK 29RA.